

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

KOMUNIKAZIO-KANALAK

Sarean webgune bat izango dugu, bezeroentzako harretarako baliagarri izango dena, hala nola, ontzien inguruko berrikuntzen berri eman eta laguntza eskaintzeko. Horrez gain, telefono zenbaki edo posta elektronikoaren bidez ere jar daitezke gurekin harremanetan. Hasieran, gutako baten telefono zenbakia jarriko dugu bezeroak gurekin harremanetan jar daitezen, eta enpresa hazten denean, enpresako telefono zenbakia sortuko dugu.

BANAKETA-KANALAK

Banaketa-kanal zuzena izango dugu, produktua kontsumitzaileari zuzenean eskaintzen baitiogu. Online salduko dugunez, garraio enpresak bezero bakoitzaren helbidera eramango ditu ontziak. Hasierako kostuei aurre egiten diegunean eta dirua irabazten hasten garenean, Beasainen denda bat jartzeko asmoa dugu; beraz, etorkizunean, denda fisikoan ere eskuratu ahal izango dituzte bezeroek gure ontziak.

SALMENTA-KANALAK

Hasiera batean, webgune, posta elektronikoa eta telefono bidez bakarrik erosi ahal izango dituzte gure ontziak. Etorkizunean, aurreko salmenta-kanalez gain, beste bat ere izango dugu. Beasainen gure denda kokatzen dugunean, dendara joanda ere erosi dezakete gure produktua.